



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Atezainaren beldurra penaltiaren aurrean



GAUR8

Ezagun du aurpegieran. Egunak dira bazkalosteant fundamētuz lo kuluxkarik egin ez duela. Euliz josita dauka egongela. Behin baino

gehiagotan ahalegindu da honezkeror periodikoarekin intsektu hegalariai leihoz bestalderako askatasunera bultzatzen. Beraien hobe beharrez ari dela esan nahiko balie bezala zabaltzen ditu besoak leiho irekiaren parean zutik jarri eta eze-rezera emandako aire kolpe bakoi-tzaren ondoren, gorputz adarrak go-ra eta behera astinduz, atezainak penaltia jaurti aurreko segundoan nola, etxe barruko metro koadroak kanpotik datorren mehatxutik defendatzeko ahalegin etsian. Izaki ñi-miño arrotz horiek sartu ziren bide beretik kanporatzeko asmo bakar-ari leial, eta ordura arte nagusi zen bakearen izenean zernahi egiteko prest.

Denetarik eduki arren ezer gutxi saltzen duen pareko dendan neguan

baino ozenago jartzen dute musika bero hauekin dominikarrek. Eulien antzera, barruraino sartzen diren dantzarako erritmoek gorazarre egi-ten diote kurtsoan zehar egindako merezimenduei esker azkenik iritsi zaigun urteko sasoiari. Bentiladorea aulki ondoan paratuta, hara eta hona gelditu gabe, haize ufada aringarriak demokratikoki barreiatzen.

Finalaren egunean Kroaziaren aldekoak ziren oi-hu gehienak auzoan. Ez zuen ulertzen oso ondo zergatik. Ekaitza lehertu zen gero. Hiri inguruan ari ziren erortzen tximistak, gero eta hurbilago, gero eta maizago. Non edo nondik jaurtitako bonbak ematen zuten, ikaragarria zen danbatekoa. Moskun euria goian behean izan arren telebistan Putin bekikirik busti gabe aterkipean ageri zen bitartean, Gasteizen ere zaparrada galanta ari zuela gogoratuko du jendeak etorkizunean. Futbolaria-riak saria jasotzeko desfilatzen hasi zirenean jo zion tinbrea auzokideak: katuak etxetik alde egin ziola eta ea

bere terrazan zegoen begiratzerik bazuen. Ez zen lehenbiziko aldia izango. Terrazara irten eta han ikusi zuen lau hankako animalia zut, begiak zabal-zabalik berari so, burua arean makurturik, terrazako izkina baten jabe. Auzokideari han zegoela eta igotzeko esan zion. Bazekien ez zituela katuak maite. Berak ere ez. Semearena omen zen eta oporretan zenez, hari zaintzea tokatu.

**Saiatu zen emeki te-
rrazako izkinara hur-**

**biltzen. Katuak beldurra adieraz-
ten zuten aienek egiten zizkion.
Eskua lehenengoz luzatu zionean
lehen abisua, ahoa zabalik eta
hortzak erakutsiz.** Bigarren-ean salto batekin terrazaren beste aldera egin zuen ihes katu arreak, hesiaren eta hormaren arteko tartean ezkutatze-ko. Ordubetez ahalegindu bazen ere, ez zuen katuari heltzerik lortu emakumeak. Gaua etxetik kanpo pasa beharko zuen azkenean. Bizilagunari ateraino lagundu eta mugimenduren bat egotekotan abisatuko ziola esanez agurtu zuten elkar. Irabazi zutenen ospakizunak eta gal-tzaileen negarrak bukatuak ziren te-
lebistan ordurako. Mokadu bat egin eta sofā loak hartu aurretik ohera-tzea erabaki zuen. Logelako atea ire-
ki eta terrazara irten zen lehenengo, egoera zein zen ikuskatzera. Arra-tsaldean aurkitu zuen leku berean zegoen katu, mugimendurik egin gabe, zuzenean berari begira, zer-nahi gerta ere, finala erabakiko zuen hurrengo mugimendurako gertu. •